

**2022ko EKAINAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** **6 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2022ko ekainaren 30ean, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Zinegotziak</b>	Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. (telematikoki) Leire Arana Olabarrieta and. (telematikoki) Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. (telematikoki) Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita and. (telematikoki)
<b>Ez da etorri</b>	Miren Letamendia Belloso and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
<b>Jarduneko kontu-hartzailea</b>	Itziar Kortabarria Garitano and. (telematikoki)

Covid-19ak eragindako alarma egoera dela-eta, aipatutako zinegotziek bideokonferentzia bidez hartu dute parte.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

## GAI-ZERREDA

### 1.- 2022ko MAIATZAREN 26ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=1>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### 2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

#### – 2022ko maiatzaren 23tik ekainaren 23ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=2>

Segidan, Alkatetzak 2022ko maiatzaren 23tik ekainaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

### 3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

#### – 2022ko maiatzaren 23tik ekainaren 20ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren 23tik ekainaren 20ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### 4.- 2021. URTEKO KONTU OROKORRA.

Espedientea: 2022D2000001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=4>

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	19	9 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	-	
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2022ko maiatzaren 12an egindako bileran, Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak aldeko txostena eman zion 2021. ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Kontu Orokorra jendaurrean egon zen, 15 eguneko epean, 2022ko maiatzaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (98 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez; eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, aipatutako batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau

### ERABAKI DU

Zarauzko Udalaren 2021. urteko Kontu Orokorra onartzea eta, halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea.

### 5.- 8. ORDENANTZA FISKALA: ZERBITZUAK ETA JARDUERA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA. ERANSKINAREN e) ATALA ALDATZEA.

Espedientea: 2022C2100005

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=5>

Antolakuntza Informazio-Batzordean, ZERBITZUAK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN 8. ORDENANTZA FISKALAREN e) atala aldatzeko proposamena aztertu da.

Antolakuntzako informazio-batzordearen proposamena ikusita, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

### ERABAKI DU

8. Ordenantza Fiskalaren eranskinaren e) puntua aldatzea, honela idatzita:

#### e) ZARAUZKO TURISMO BULEGOA

Tarifak (BEZ sartuta)	€
Boligrafoa	1,00
Boligrafo argiduna	3,55
Metalezko giltzatak	3,55
Gomazko giltzatak	3,05
Helduen kamiseta	12,70
Umeen kamiseta	8,60
Bisera	7,10
Intsignia-pina	2,05

Libreta	2,55
Arkatza (Swarovski)	1,50
Pen Drive-a (16GB)	12,70
Motxila	3,95
Balea	15,20
Posterra	3,05
Sisters poltsa	10,15
Sisters motxila	12,15
Sisters katilua	10,15
Sisters koaderno	8,10
Sisters liburua	15,15
Sisters giltzatak	8,10
Sister Kandela	17,25
Sisters orri markatzailea	9,15
Mugikorraren kargagailua	15,20
“Toldotxo” platera	5,05
Likidoentzako bidoia	3,95
Margoak	1,50
Erraldoiak	15,00
Katilua	7,00
Katilua	7,00
Ibilbide antzeztuak .- Prezioa pertsonako	5,00
Ibilbide antzeztuak.- Haurrak, 14 urte arte	0,00

**6.- 2022KO AURREKONTUAN KREDITU ALDAKETA: 2022-KALD-000009-00 (KREDITU GEHIGARRIAK). HASIERAKO ONESPENA.**

Espedientea: 2022D2010001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=6>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du **idazkariak**. Eztabaidaren ondoren, proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	12	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	—	

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

Antolakuntzako udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau

**ERABAKI DU**

**Lehena.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2022-KALD-00000900 zenbakia duen espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, laburpen honen arabera:

#### GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
6	INBERTSIO ERREALAK	412.000,00
7	KAPITALEKO TRANSFERENTZIAK	539.536,59
<b>KREDITU GEHIGARRIAK, GUZTIRA</b>		<b>951.536,59</b>

#### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	951.536,59
<b>FINANTZAKETA, GUZTIRA</b>		<b>951.536,59</b>

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikoa izango da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

### **7.- 3. ORDENANTZA FISKALA: HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA. II. ERANSKINAREN EGUNGO IDAZKETA ARGITZEA.**

Espedientea: 2022C2100001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=7>

Antolakuntzako informazio-batzordean, HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN II. ERANSKINAREN IDAZKETA, 2022ko maiatzaren 11tik aurrera indarrean dagoena, argitzeko proposamena aztertu da.

Antolakuntzako informazio-batzordearen proposamena ikusita, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

### **ERABAKI DU**

**Lehena.-** HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN II. ERANSKINA HONELA ULERTZEA:

ALDIA	KARGA TASA
Hilabete 1etik 17 urte artekoa	% 15
18-19 urte artekoa	% 13,5
20 urte edo gehiagokoa	% 13,4

**Bigarrena.-** Akordioaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## 8.- ZARAUZKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.

Espedientea: 2017I1200001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=8>

2017ko ekainaren 28an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS SA enpresari adjudikatzea ZARAUZKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA egiteko kontratua. Kontratua 2017ko abuztuaren 11n sinatu zen.

Kontratuak lau urteko iraupena du, formalizatzen denetik kontatzen hasita. Dena den, urtez urte luzatu ahal izango da; baina iraupen osoa, luzapen eta guzti, gehienez ere sei urtekoa izango da.

Ikusita Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren proposamena, eta Herritarren arloko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

### ERABAKI DU

ZARAUZKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA egiteko kontratua urtebete luzatzea, 2022ko abuztuaren 12tik 2023ko abuztuaren 11ra arte.

Luzapen hau azkena izango da, eta epe hau bukatu ondoren adjudikaziodunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, harik eta adjudikaziodun berriak zerbitzua bere gain hartu arte. Bitarte horretan kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoko ditu.

## 9.- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN I. ERANSKINAREN ALDAKETA (TAO).

Espedientea: 2013I1330001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=9>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du **idazkariak**. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

2021ko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak onartu zuen ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA (TAO) eta bere testu osoa 2021eko maiatzaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (87 zk.).

Udaleko Mugikortasun Departamentuak txosten bat egin du eta bertan adierazten da: *“Bizilagunek egindako ekarpenen aurrean, eta zonen funtzionamendua jarraitzen aritu den enpresa kudeatzaileak emandako informazioarekin, aparkaleku-zona jakin batzuk eguneratu nahi dira, egungo mapa hobetzeko. Gainera, kontuan hartu behar da laster kendu egingo dela Messileko disuasioparkinga; horregatik proposatu da Herrikosoro kalea egokitzea, aldi baterako edo behin-behineko aparkaleku gisa (tarifa berdea), zeregin bera bete dezan, gutxienez Salberdineko parking berria eraiki arte.”*

Ordenantza horren 2. artikulua honako hau ezartzen du: *“Udalbatzarrak ahalmena izango du zona arautuak eta horien izaera aldatzeko, baina aldez aurretik zona horietako bizilagunen parte-hartzea bermatuko duen prozedura beteko du.”*

Aurrekoa betetzeko, dagokion partaidetza-prozesua gauzatu da, ekainaren 3an amaitu dena, eta ez da inolako ekarpenik edo iradokizunik aurkeztu.



Hori horrela, eta 2022ko ekainaren 16an egindako bileran Herritarren informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN I. ERANSKINAREN (TAO) aldaketa onartzea, eremuak honela aldatuz:

- Herrikosoro kalea.
- Lapurdi kalearen azken zatia (ekialdea, Mintegi kaletik).
- Bizkaia kalea, Zelai Ondoren alboan (bertakoentzako jartzea, ordutegi komertzialean gehienez 30 minutuko bi plazekin).
- Plaza berriak (zona urdina) Nafarroa kalean (45 zenbakitik gasolindegiraino).
- Talaimendiko beheko aldea (zona urdinera aldatuko da).

**Bigarrena.-** Aldaketa hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratzea eta ahalik eta zabalkunderik handiena ematea, jende guztiak horren berri izan dezan.





**10.- HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA, 7.1.03 ETA 7.2.12 ARTIKULUEI DAGOKIENA (BALKOIAK, TERRAZAK ETA HEGAL IREKIAK). BEHIN BETIKO ONESPENA**

Espedientea: 2020H7000010

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=10>

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	19	9 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	-	
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak proposamen bat idatzi zuen hiri antolamenduaren plan orokorreko ordenantza orokorren 7.1.03 eta 7.2.12 artikulua aldatzeko.

Aldaketaren helburua da erraztasunak ematea etxebizitzetan balkoiak, terrazak eta hegal irekiak eraikitzeko eta, bide batez, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko.

2022ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespena eman zion ordenantzak aldatzeko proposamenari.

Espedientearen jendaurreko erakustaldian, guztira 2 alegazio-idazki aurkeztu ziren, eta Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak horiei buruzko txostena egin zuen.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** Aurkeztutako alegazioei erantzutea, Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak egindako txostenaren arabera (maiatzaren 18ko 296/2022 txostena). Horren ondorioz:

1.- Zumalakarregi 23ko jabeen elkartea. Alegazioa ezetsi egin da.

Beharrezkotzat jo da balkoien gehieneko irtenguneak finkatzea. Jarritakoak proportzionatuak eta nahikoak dira ordenantzak lortu nahi duen helbururako.

Ezin da eraikuntza-elementu hain garrantzitsua definitu gabe utzi, eta interpretatzeko subjektiboak eta konplexuak diren irizpide estetiko zehaztugabeen esku laga.

Hala ere, eraikuntza-proiektu jakin bat aztertzen denean, udal-ordenantzak interpretatzeko eskumenak baliatuz, salbuespenen bat onar daiteke, arrazoi teknikoak eta hirigintzakoak direla medio.

## 2.- Patxiku 4ko jabeen elkartea. Alegazioak onartzea.

Plan orokorraren ordenantzak aldatzeko espedientea amaitu ondoren, 1.1 (Alde Zaharra) eta 1.2 (Zabalgunea) eremuen plan berezien ordenantzak aldatzeko espedientea hasiko da, Hirigunean ere balkoiak eta hegal irekiak eraiki ahal izateko.

**Bigarrena.-** Behin betiko onespena ematea hiri antolamenduaren plan orokorreko ordenantzen 7.1.03 eta 7.2.12 artikuluen aldaketari (balkoiak, terrazak eta hegal irekiak).

Behin betiko onespenerako dokumentuaren edukia eta hasieran onartutakoa berdin-berdinak dira (2022ko urtarrileko dokumentua, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak idatzitakoa).

**Hirugarrena.-** Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak. Halaber, behin betiko onespeneraren akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

## 11. ABENDAÑO INDUSTRIALDEKO PLAN PARTZIALEKO ORDENANTZAREN ALDAKETA, ERABILERA-ERREGIMENARI DAGOKIONA. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientea: 2022H7000002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=11>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, udal taldeen iritzirik trukaketarako tartea zabaldu da. Eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Aldeko botoak:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	—	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

Udalak kontsulta publikoa egin zuen Abendaño industrialdearen plan partzialeko erabilera-erregimenaren ordenantza aldatzeko ekimenaren inguruan.

Ondoren, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak aldaketa-proposamenaren testua idatzi zuen (2021eko ekaineko dokumentua).

Aldaketan proposamen hauek sartzen dira:

a.- Zarautzen 1.000 m<sup>2</sup>-tik gorako txikizkako merkataritza-establezimenduen eskaintza handitzea eta lehia sustatzea, herritarren onerako. Aukera hori bi partzeletan bakarrik onartuko da (27 eta 28); horien azalera eraikia ez da iristen Abendaño gune osoaren % 10era.

b.- Gainerako partzeletan egun debekatuta dauden zenbait erabilera sartzea, erabilera bateragarri eta onargarri gisa (kirol- eta erlijio-ekipamenduko erabilerak, hileta-zerbitzuak...).

Espedientea aztertu eta Lurraldeko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Hasierako onespena ematea Abendaño industrialdeko plan partzialeko erabilera-erregimenaren ordenantzaren aldaketari. Zarauzko Udalak abiarazi du espedientea.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzen. Jendaurreko epea 30 egunekoa izango da, eta erakustaldiaren informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik gabe. Hori bai, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da aldatutako xedapenen testu osoa.

Arratsaldeko zortzi eta hamarrean, **Alkate** jaunak bilkura eten egin du, Covidaren inguruko segurtasun neurriak direla eta, aretoa aireztatzeko. Handik hamar minutura, zortziak eta hogeian, berriro ekin diote bilkurari.

**12.- EUSKAL TRENBIDE SAREAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, TREN-GELTOKI BERRIAREN ETA**

## TRENBIDE AZPIKO PASABIDEAREN ERAIKUNTZA FINANTZATZEKO. HITZARMENAREN GEHIGARRIA.

Espedientea: 2020H9890001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=12>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du **idazkariak**. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

2020ko maiatzaren 27an, ETS Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak eta Zarauzko Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten tren-geltoki berriaren eta trenbide azpiko pasabidearen eraikuntza-proiektua finantzatzeko. Oinezkoentzako pasabide horrek trenbidearen iparraldean eta hegoaldean dauden egoitza-guneak lotuko ditu.

Obrak 2021eko udan hasi ziren.

Obren aurrekontua 13.053.303,76 eurokoa izan zen. Hitzarmenean adostu zen Zarauzko Udalak obraren kostuaren % 33,3ko ekarpena egingo zuela obra finantzatzeko; hau da, hasiera batean, 4.346.750,13 €; kopuru hori hainbat urtetako aurrekontuetan banatu zen.

Hitzarmenean aurreikusita dagoen bezala, jarraipen-batzorde bat eratu zen. 2022ko urtarrilean eta ekainean egindako bileretan, hasierako proiektuan aldaketak egitea adostu zuten bi aldeek (trenbidea Lapurdi kalerantz mugitzea, Mitxelena eta Lapurdi kaleen artean behin-behineko pasabide bat jartzea...). Erabaki horiek 1.620.230,01 euroko gainkostua ekarri diote aurrekontuari.

ETSk hitzarmenaren gehigarri bat igorri dio Udalari, eta, bertan proposatu du aipatu den zenbatekoari 2020ko maiatzean sinatutako hitzarmenean ezarritako ekarpen berberak aplikatzea: % 66,7 ETSren kontura, eta % 33,3 Udalaren kontura (539.536,59 €).

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak hitzarmen-proposamenari buruzko txostena egin zuen.

Udal Kontu-hartzailtzak fiskalizazio ekonomikoaren txostena egin du. 2022rako gastu-konpromisoaren gehikuntzari aurre egiteko, beharrezkoa da aurrekontuan diruzindapen bat edukitzea. Horretarako, kredituak aldatzeko proposamena egin da; Udalbatzak 2022ko ekainaren 30ean eman behar dio hasierako onespena.

Lurraldeko udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** ETS Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren gehigarria onartzea, tren-geltoki berriaren eta trenbide azpiko pasabidearen eraikuntza-proiektua finantzatzeko. Oinezkoentzako pasabide horrek trenbidearen iparraldean eta hegoaldean dauden egoitza-guneak lotuko ditu.

**Bigarrena.-** Alkateak edukiko du hitzarmenaren gehigarria sinatzeko eskumena, Udalaren izenean.

**"RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREA" ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN 1. GEHIGARRIA. HELBURUA: ZARAUZKO TRENBIDE-GELTOKI BERRIAREN ETA BILBAO-DONOSTIA TRENBIDEKO AZPIKO PASABIDEAREN ERAIKUNTZA-PROIEKTUA FINANTZATZEA ETA ERAIKITZEA.**

Bilbon, 2022ko ekainaren \_\_ (e)(a)n

### BILDUTA:

Alde batetik, Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako "Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea" (ETS) erakunde publikoaren Zuzendari Nagusia, 48001, Bilbao (Bizkaia), Albia eraikina, San Vicente 8, 14. solairua.

Bestetik, Xabier Txurruka Fernández jauna, Zarauzko alkatea, 20800, Zarautz, (Gipuzkoa); udaletxea, Zigordia kalea, 33.

### PARTE HARTZEN DUTE:

Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako ETS erakunde publikoko Zuzendari Nagusia, haren ordezkari gisa, horretarako baimena eman baitio Administrazio Kontseiluak 2022ko martxoaren 28ko bilkuran.

Xabier Txurruka Fernandez jauna, Zarauzko Udaleko alkatea den aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan agindutakoarekin bat etorritik, gehigarri hau formalizatzeko behar den ahalmena du, Udalak 2022ko \_\_\_\_aren \_\_ (e) (a) n egindako osoko bilkuran hartutako erabakiari jarraiki, Idazkariak emandako ziurtapenaren arabera.

Parte hartzen duten kontzeptuan jarduteko beharrezkoa den legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri alderdiek, eta:

### ADIERAZTEN DUTE:

- I. Bi alderdiek, 2020ko maiatzaren 27an, "Red FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE sarea" zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta Zarauzko Udalaren arteko lankidetzaren

hitzarmena sinatu zuten, Zarauzko tren-geltoki berria eta Bilbao-Donostia trenbideko azpiko pasagunea eraikitzeke proiektua finantzatu eta eraikitzeke.

- II. Hitzarmenaren xedea da "Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trebide Sarea" ente publikoak eta Zarauzko Udalak Zarauzko trenbide-geltoki berriaren eta Bilbao-Donostia trenbideko Zarauzko 85/688 KPko geltokiaren inguruko azpiko pasagunearen obrak finantzatu eta burutzeko elkarlanean nola jardun behar duten zehaztea, trenbide-geltokirako sarbidea aurreikusten baita geltoki horren bidez. Horri esker, egun dauden trenbide-instalazioak modernizatu ahal izango dira eta trenbide-trazadura hobeto integratzea udalerrian.
- III. Hitzarmenaren Seigarren Klausulak, "Eraikuntza-proiektuaren zuzendaritza, koordinazioa eta jarraipena edo idazterako beharrezkoak diren bestelako lanak", Jarraipen Batzorde bat sortzea ezartzen du. Batzorde horrek osaera paritarioa izango du, eta honako eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:
  - (a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduketak behar bezala gauzatzen direla egiaztatzeke segimendua egitea, elkarren arteko informazioa eta alde bakoitzaren konpromisoak behar bezala betetzeko irizpideak eta moduak zehaztuz.
  - (b) kasu bakoitzean eskatzen diren izapideen azkartasuna zailtzen duten oztopen enkaitza erraztea;
  - (c) hitzarmen honen xede diren jarduerak betetzen direla bermatzeko behar diren neurrien berri eman eta proposatzea.
  - (d) Hitzarmena interpretatzean eta gauzatzean sor daitezkeen arazoak konpontzen saiatzea.
- IV. 2022ko urtarrilaren 26an, Jarraipen Batzordea bildu zen, besteak beste, aho batez honako erabaki hau hartzeko: Proiektuaren hasierako trazadura aldatzea, bideetako bat Lapurdi kalera eramanez eta hurbilduz.
- V. 2022ko urtarrilaren 26an, Jarraipen Batzordea bildu zen, besteak beste, aho batez honako erabaki hau hartzeko: Oinezkoentzako behin-behineko pasabide bat eraikitzea Mitxelena eta Lapurdi kaleak lotzeko.
- VI. Azaldutakoaren arabera, beharrezkoa da eranskin bat sinatzea, Jarraipen Batzordeak onartutako proiektu-aldaketak arautzeko. Hitzarmenaren 1. eranskina (1. zk.) 2022ko urtarrilaren 13an sinatu zenez, alderdiek 2. eranskin hau sinatu dute, honako klausula hauen arabera:

#### KLAUSULAK:

#### **LEHENENGOA.- PROIEKTUA ALDATZEA. JARDUKETA HAU GAUZATZEARI ETA FINANTZATZEARI BURUZKO KONPROMISOAK.**

Proiektua aldatzea erabaki da, IV. eta V. azalpenetan adierazitako moduan.

Zarauzko Udalak konpromisoa hartu du jarduketa hauek gauzatzeko behar diren lurzoruak lortzeko.

Jarduketa horren kostua, guztira (KGA), 1.620.230,01 eurotan zenbatetsia (zergak sartu gabe), Euskal Trenbide Sarea eta Zarauzko Udalaren artean finantzatuko da, honela (Zenbateko hori alde aurretik hartutako ordainketa-konpromisoei pilatutako gehigarria da):

a).- ETSk konpromisoa hartzen du aldaketaren kostu zenbatetsiaren % 66,7 jartzeko zati bat finantzatze aldera. Aurrekontua 1.080.693,42 €-koa izango da (zergak sartu gabe). Horretarako, 2022ko urterokoaren kargura ekarpen osoa egitea aurreikusten da.

b).- Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du aldaketaren kostu zenbatetsiaren % 33,3 jartzeko zati bat finantzatze aldera. Aurrekontua 539.536,59 €-koa izango da (zergak sartu gabe). Horretarako, 2022ko urterokoaren kargura ekarpen osoa egitea aurreikusten da.

c).- Bi alderdiek neurri berean (% 66,7 ETSk eta % 33,3 Zarauzko Udalak) egingo diote aurre jarduketa hauek gauzatzean azkenean gertatzen den edozein ekonomia-gehikuntzari, betiere jarduera horiekin zuzeneko lotura badu.

Proiektua aldatzeko obrei ekin aurretik, Zarauzko Udalak bere gain hartutako finantza-konpromisoari aurre egiteko kreditu egoki eta nahikoaren eskuragarritasunaren eta erreserbaren ziurtagiria bidaliko dio ETSri.

#### **BIGARRENA.- Mantentzea eta indarraldia.**

Gehigarri honetan berriaz berrikusi eta jaso ez den guztirako, indarrean jarraituko dute eta aplikatuko dira bi alderdiek 2020ko maiatzaren 27an hasieran sinatutako hitzarmenaren klausulak.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

### **13.- 16 AREAN -OR HEGOALDE- UDAL KUDEAKETAKO BEHIN-BEHINEKO APARKALEKU BAT JARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAK.**

Espedientea: 2022H9890003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=13>

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak

Ondorioz, Udaltzarrak adierazitako gehiengoarekin, honakoa erabaki du:

Alkatetzak hala eskatuta, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak Zarauzko Udalaren eta hiru partzela-jabeen artean sinatu beharreko hitzarmenaren zirriborroak idatzi zituen, xede honekin: Zarauzko Udalari aldi baterako lagatzea 16 arean –OR Hegoalde– dauden hiru partzelaren erabilera, lur gaineko behin-behineko aparkaleku gisa erabiltzeko. Udalak berak kudeatuko du aparkalekua, hitzarmenak indarrean dirauen bitartean.

Hitzarmenaren xede diren finkak honako hauek dira:

**a.-** Bizkaia 44 (6792360 katastro-erreferentzia, 3065964 E finka); katastro-azalera, 3.856 m<sup>2</sup>.

**b.-** Bidezahar 7 (6792349 katastro-erreferentzia, 5175271 T finka); katastro-azalera, 1.688 m<sup>2</sup>.

c.- Bizkaia 46 (6792159 katastro-erreferentzia, 3065974 F finka); katastro-azalera, 5.310 m<sup>2</sup>.

Hitzarmen-proposamena ondorengo konpromisoetan laburbiltzen da:

a.- Jabeek Udalari emango diote finken erabilera eta erabilgarritasun osoa (lurra eta eraikuntzak), okupatzailerik gabe, Udalak aldi baterako aparkaleku publiko gisa erabil ditzan. Erabilera hori librean edo arautua izan daiteke (TAO edo antzeko sistemaren bat), udal-administrazioak egokitzen jotzen duenaren arabera.

b.- Zarauzko Udalak bere gain hartuko ditu aparkalekua egokitzeko egin beharreko gastu guztiak; gastu horietan sartuta daude bertako eraikinen eraisketa eta eraisketa-hondakinen kudeaketa.

Horretarako, 59.000 euroko aurrekontu-partida bat gaitu behar da, 2022ko ekitaldian aurreikusitako gastuei aurre egiteko (lurren azterketa, eraisketa-proiektuak...), eta 215.000 euroko gastu-konpromiso bat ere bai 2023ko ekitaldirako (eraisketak, aparkalekua egokitzea...). Horrenbestez, eragiketaren zenbatekoa, guztira, 274.000 eurokoa izango da.

Alkatetzaren dekretu bidez, 59.000 euroko kreditu bat gaitu da 2022ko aurrekontuan.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak txostena egin eta hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau

## ERABAKI DU

**Lehena.**- Honako gastu-konpromiso hau onartzea, 2023ko ekitaldirako:

5.1101.645.133.00.2023: 215.000 €.

**Bigarrena.**- Zarauzko Udalaren eta hainbat partzela-jabeen artean sinatu beharreko hitzarmena onartzea, helburua izanik Zarauzko Udalari aldi baterako lagatzea 16 arean –OR Hegoalde– dauden hiru partzelaren erabilera, lur gaineko behin-behineko aparkaleku gisa erabiltzeko. Udalak berak kudeatuko du aparkalekua.

**Hirugarrena.**- Alkateak edukiko du hitzarmena sinatzeko eskumena, Udalaren izenean.

ZARAUZKO 16 AREAN –OR HEGOALDE– UDAL KUDEAKETAKO BEHIN-BEHINEKO APARKALEKU BAT JARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Zarautzen, 2022ko ...aren ..(e)an



## BILDU DIRA

**Alde batetik**, ....., 16 -OR Hegoalde- arean dagoen 6792360 katastro-erreferentziako partzelaren jabetza osoaren ordezkari gisa.

**Eta bestetik**, **Xabier Txurruka Fernandez** jauna, Zarauzko Udaleko alkate-udalburua, Udalaren ordezkari izateko legezko gaitasunaren jardunean (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak emandakoa), eta Udalbatzak 2022ko ....aren ..ean hartutako erabakia betez.

## ADIERAZTEN DUTE:

**Lehena**.- Antzeko biztanleria duten udalerrri gehienetan bezala, Zarautzen ere aparkatzeko arazoak daude. Zarautzen, arazoa areagotu egiten da udan, herriaren ezaugarri turistiko bereziengatik.

Urteetan zehar, Udalak hainbat neurri hartu ditu aparkalekuaren arazoa arintzeko: ibilgailuen aparkamendua arautzea, TAO jarritz, udaldia eta urteko gainerako egunak bereiziz; behin-behineko aparkalekuak jartzea, hirigintzako garapena eta/edo egikaritzea egiteko duten hainbat kokalekutan.

**Bigarrena**.- Gaur egun dauden behin-behineko aparkalekuen artean, honako hauek nabarmentzen dira, denak hiri-lurzoruan:

Salberdin-Messill (4.300 m<sup>2</sup>). 160 plazako edukiera du, gutxi gorabehera.

Kortazar (4.600 m<sup>2</sup>). 170 plazako edukiera du, gutxi gorabehera.

Eguzki Izarra (8.600 m<sup>2</sup>). 240 plazako edukiera du, gutxi gorabehera.

Aipatutako horietatik bi (Salberdin-Messill eta Eguzki Izarra) ez dira erabilgarri egongo 2023an. Horrek 400 aparkaleku-plaza inguru galtzea ekarriko du.

**Hirugarrena**.- Udalak aparkalekuren bat egokitu nahi du galduko direnen alternatiba gisa.

Lekurik egokiena 16. –OR Hegoalde– arearen mendebaldea da. Area hori hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatuta dago, eta antolamendu xehatuaren zain dago (hiri-antolamenduko plan berezia). Area horretan dauden eraikinak antolamenduz kanpoko egoera geroratuan daude, eta araubide murriztailea dute obrei eta erabilerei dagokienez.

Hegoalde arearen garapen urbanistikoak (plangintza, kudeaketa eta gauzatzea) urte batzuk beharko ditu oraindik.

**Laugarrena**.- Hegoalderen egoera aztertu ondoren (jarduerak martxan dauden ala ez, eraikinen egoera...), Udalak uste du kokapen egokiena elkarren ondoko katastro-partzela hauek osatutakoa dela:

- 6792360 (Bizkaia 44)
- 6792349 (Bidezahar 7)
- 6792159 (Bizkaia 46)

Hiru partzelen artean 11.000 m<sup>2</sup> inguruko azalera dute, eta 400 aparkamendu-plazatik gora hartzeko gaitasuna.

**Bosgarrena**.- Ondoren aipatzen diren pertsonak Manufacturas Zarauz enpresa zaharreko partzelaren eta eraikinaren jabeak dira (Bizkaia 44).

Itziar Promocion de Naves SL  
Bernard Herman Bertelink Robers  
Concepción Urbietta Zubeldia

Gaur egun, Manufacturas Zarauz enpresaren eraikinean ez dago jarduera ekonomikorik. Partzela sartuta dago kutsatuta egon daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan (20079-00053 kodea).

**Seigarrena.**- Zarauzko Udalak aparkamendu-plazak jarri nahi ditu, dagoen arazoa arintzeko, batez ere udaldian.

Bestalde, jabeek, arearen eta bertako eraikinaren hirigintza-egoera ezagutzen dutenez, eta arazoak eta erantzukizunak saihesteko, egokia iruditzen zaie eraikina alde aurretik eraista eta partzelaren erabilera Udalari lagatzea, bertan behin-behineko aparkaleku bat jarri dezan, lehen esan bezala.

Adierazitakoagatik, interes publikoak eta pribatuak uztartzeko, aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

### 1.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Zarauzko Udalari aldi baterako lagatzea 16 –OR Hegoalde– arean dagoen partzela baten erabilera, lur gaineko behin-behineko aparkaleku gisa erabiltzeko. Udalak berak kudeatuko du aparkalekua, hitzarmenak indarrean dirauen bitartean.

Hitzarmenaren xede diren finka honako hau da:

Bizkaia 44 (6792360 katastro-erreferentzia, 3065964 E finka), 3.856 m<sup>2</sup>-ko katastro-azalera.

2.a klausulan aurreikusitako jarduketak hasi aurretik, hitzarmenari erantsi beharreko plano bat marraztuko da, lagako diren lurzoruen mugaketa jasoko duena.

### 2.- ZARAUZKO UDALAREN KONPROMISO ETA AHALMENAK.

#### 2.a.- Aparkalekua egokitu aurretik

Aparkalekua egokitzeko eraitsi beharreko eraikinak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eduki izan ditu. Udalak bere gain hartzen du eraispn-hondakinen kudeaketari buruzko 112/2012 Dekretuan araututako jarduketa hauek kontratatu eta ordaintzeko konpromisoa:

**2.a.1.- Partzelako lurzorua kalitatearen azterketa**, erakunde egiaztatu batek idatzi beharrekoa, partzelak aparkaleku-erabilerarako egokia den egiaztatzeko.

Azterketaren emaitza aparkalekua jartzeko udal-ekimenaren aurkakoa bada, hitzarmena amaitutzat joko da, eta alderdietako batek ere ez dio ezer ordaindu beharko besteari.

Udalak hitzarmena suntsitzeko aukera ere izango du, baldin eta, partzela hauen azterketaren emaitza aldekoa izan arren, alboko partzeletan egindako azterketa kontrakoa bada.

**2.a.2.- Lehendik dagoen industria-eraikina eraisteko obrak gauzatzeko proiektua eta obra-zuzendaritza**, teknikari eskudunek egin beharrekoa; hondakinen eta eraikuntza- eta eraispn-materialen kudeaketari buruzko azterlanak ere sartuko dira, eta 112/2012 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako gutxieneko edukia izango dute. Proiektuen Memorian eraikinaren deskribapen fisiko bat egingo da, eta eraikitako azalaren eta egoeraren berri emango da (optimoa, ona, erdipurdikoa, txarra, oso txarra...), bere garaian kontuan hartu ahal izateko birpartzelazio-proiektu batean kalte-ordainak eta lurzorua balorazioa

kalkulatzeko, Lurzoruari buruzko Legearen balorazioen erregelamendua onartu zuen 1492/2011 Errege Dekretuaren 23. eta 25. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera..

**2.a.3.- Eraikinaren azterketa gehigarria**, erakunde egiaztatuak idatzi beharrekoak; 112/2012 Dekretuaren II. eranskinean aurreikusitako edukia izango du. Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak azterketa horri buruzko txostena egin beharko du.

**2.a.4.- Eraispen-obra egitea eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzea**, 112/2012 Dekretuan jasotakoaren arabera.

Orientazio gisa, aurreko jardueren kostua 39.000 €-tan kalkulatu da, BEZa barne. Kostu hori Udalak ordainduko du oso-osorik, 4.1. klausulan adierazitakoari utzi gabe. Udalak beretzat gordetzen du gastu horiek eremuaren etorkizuneko kudeaketan eta birpartzelazioan urbanizazio-karga gisa baliatzeko eskubidea.

## **2.b.- Aparkalekua egokitzea eta kudeatzea.**

**2.b.1.- Aparkalekua eraikitzea**. Aurreko paragrafoetan deskribatutako jarduerak amaitutakoan, Udalak beharrezko gestioak egingo ditu ingurumen-organoaren aurrean, lagapenaren xede diren lursailetan behin-behineko aparkaleku-erabileraren baimena lortzeko.

Baimen hori lortuta, aparkalekua egokitu du, eta gaur egun Salberdineko (Messill), edo Kortazarreko lurretan egokituta daudenen ezaugarri berberak izango ditu.

**2.b.2.- Aparkalekuaren kudeaketa**. Udalari egokitu zaió hitzarmenaren indarraldi osoan eta, hala badagokio, horren luzapenean.

Udalak nahi duena aukeratu dezake: doako aparkaleku publiko gisa erabiltzea, edo aparkaleku arautu gisa, TAO sistemaren barruan edo beste edozein kudeaketa-moduren bidez.

**2.b.3.- Lagatako lurrak kontserbatzea, mantentzea eta garbitzea**. Udalaren kontura izango dira.

**2.b.4.- Erantzukizun zibila eta penala**. Hitzarmenaren indarraldian, lagatako lursailean gerta daitezkeen kalteengatik sortutako erantzukizun zibil edo penal guztietatik salbuesten du Udalak jabetza.

**2.b.5.- Jabeai urtero OHZren ordainagiriaren kopuru baliokidea ordaintzea**. Erabilera-lagapenak ez du prezio baten ordainketarik sortzen. Hala ere, kontuan hartuta Udalak erabiliko duela finka interes publikoko arazoengatik, egokitze jotzen da Udalak ordaintzea ondasun higiezinaren gaineko urteko zergari (OHZ) dagokion gastua.

Beraz, 2023tik aurrera, behin aparkalekua egokituta, ordaindu beharreko OHZren ordainagiriaren zenbatekoa ordainduko dio Udalak jabeari.

Ordainketa urtez urte egingo da, jabetzak izendatzen duen kontuan, ordainagiriak ordaindu dituela justifikatu ondoren.

Informazio-ondorioetarako, 2022an honako hau izan da finkari dagokion ordainagiria:

Bizkaia kalea 44 (3065964 E finka): 2.481,76 €

## **3.- JABETZAREN KONPROMISOAK**

Hitzarmena sinatzen den unean, jabetzak Udalari emango dio finkaren erabilera eta erabilgarritasun osoa (lurra eta eraikuntza), okupatzailerik gabe, Udalak aldi baterako aparkaleku publiko gisa erabil ditzan. Erabilera hori librea edo arautua izan daiteke (TAO edo antzeko sistemaren bat), udal-administrazioak egokitze jotzen duenaren arabera.

#### **4.- INDARRALDIA, BERRIKUSPENA ETA IRAUNGIPENA**

**4.1.- Indarraldia.** LAU URTEKOA izango da, sinatzen denetik kontaktzen hasita.

Aurreko atalean aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, alderdiek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea – gehienez lau urteko aldi baterako – edo iraungitzea.

Jabetzak hitzarmena ez luzatzea erabakitzen badu, Udalari ordaindu beharko dizkio 2a klausulan deskribatutako jarduera guztiengatik Udalak bere gain hartutako eta ordaindutako kostu eta ordainketa guztiak, legezko interesak gehituta.

**4.2.- Berrikuspena eta aldaketa.** Hitzarmena berrikusi edo aldatu ahal izango da, alderdiek aho batez hala adosten badute.

**4.3.- Iraungitzea.** Hitzarmena bere indarraldia amaitzen denean iraungiko da, edo aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak bete ez eta hitzarmena suntsiarazten denean.

Aurretiaz ere iraungi ahal izango da, 2.a.1 klausulan aurreikusitako inguruabarra gertatzen bada.

Hitzarmena berau ez betetzeagatik suntsitzen bada, sortutako kalte eta galera guztiak ordaindu beharko dizkie suntsiarazpenaren eragileak bai beste alderdiari bai fede oneko hirugarrenei.

#### **5.- HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA.**

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratuko da. Batzorde hori Zarauzko Udalaren bi ordezkari eta jabeen beste bi ordezkari osatuko dute, eta bere eginkizunak honako hauek izango dira: ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak gauzaraztea, horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea, partzelaren erabilera egitean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea, eta, oro har, etorkizunean sor daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

#### **6.- HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA**

Hitzarmenak izaera administratiboa du. Ondorioz, antolamendu juridiko administratiboak arautuko du. Bi aldean adostasunez aldatu ahal izango da.

Eta ados daudela adierazteko, bertaratuek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goian adierazitako tokian eta egunean.

### **ZARAUZKO 16 AREAN –OR HEGOALDE– UDAL KUDEAKETAKO BEHIN-BEHINEKO APARKALEKU BAT JARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA**

Zarautzen, 2022ko ...aren ..(e)an

#### **BILDU DIRA**

**Alde batetik, .....,** guztiak, 16 –OR Hegoalde– arean dauden 6792159 eta 6792349 katastro-referentziako partzelen jabetza osoaren ordezkari gisa.

**Eta bestetik, Xabier Txurruka Fernandez** jauna, Zarauzko Udaleko alkate-udalburua, Udalaren ordezkari izateko legezko gaitasunaren jardunean (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak emandakoa), eta Udalbatzak 2022ko ...aren ..ean hartutako erabakia betez.

#### ADIERAZTEN DUTE

**Lehena.-** Antzeko biztanleria duten udalerrri gehienetan bezala, Zarautzen ere aparkatzeko arazoak daude. Zarautzen, arazoa areagotu egiten da udan, herriaren ezaugarri turistiko bereziengatik.

Urteetan zehar, Udalak hainbat neurri hartu ditu aparkalekuaren arazoa arintzeko: ibilgailuen aparkamendua arautzea, TAO jarriz, udaldia eta urteko gainerako egunak bereiziz; behin-behineko aparkalekuak jartzea, hirigintzako garapena eta/edo egikaritzea egiteko duten hainbat kokalekutan.

**Bigarrena.-** Gaur egun dauden behin-behineko aparkalekuen artean, honako hauek nabarmentzen dira, denak hiri-lurzoruan:

Salberdin-Messill (4.300 m<sup>2</sup>). 160 plazako edukiera du, gutxi gorabehera.

Kortazar (4.600 m<sup>2</sup>). 170 plazako edukiera du, gutxi gorabehera.

Eguzki Izarra (8.600 m<sup>2</sup>). 240 plazako edukiera du, gutxi gorabehera.

Aipatutako horietatik bi (Salberdin-Messill eta Eguzki Izarra) ez dira erabilgarri egongo 2023an. Horrek 400 aparkaleku-plaza inguru galtzea ekarriko du.

**Hirugarrena.-** Udalak aparkalekuren bat egokitu nahi du galduko direnen alternatiba gisa.

Lekurik egokiena 16. —OR Hegoalde— arearen mendebaldea da. Area hori hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatuta dago, eta antolamendu xehatuaren zain dago (hiri-antolamenduko plan berezia). Area horretan dauden eraikinak antolamenduz kanpoko egoera geroratuan daude, eta araubide murriztailea dute obrei eta erabilerei dagokienez.

Hegoalde arearen garapen urbanistikoak (plangintza, kudeaketa eta gauzatzea) urte batzuk beharko ditu oraindik.

**Laugarrena.-** Hegoalderen egoera aztertu ondoren (jarduerak martxan dauden ala ez, eraikinen egoera...), Udalak uste du kokapen egokiena elkarren ondoko katastro-partzela hauek osatutakoa dela:

- 6792360 (Bizkaia 44)
- 6792349 (Bidezahar 7)
- 6792159 (Bizkaia 46)

Hiru partzelen artean 11.000 m<sup>2</sup> inguruko azalera dute, eta 400 aparkamendu-plazatik gora hartzeko gaitasuna.

**Bosgarrena.-** Ondoren aipatzen diren pertsonak Construcciones Metálicas Arregi enpresa zaharreko partzelen eta eraikinen jabeak dira (Bidezahar 7 eta Bizkaia 46).

María-Rosario Arregui Gaztañaga  
Alejandro Arregui Gaztañaga  
Iñigo Arregui Gaztañaga  
Javier Arregui Gaztañaga  
Joseba Arregui Gaztañaga  
Gorka Arregui Gaztañaga  
Jose-Angel Larrañaga Labaca  
Yon Larrañaga Labaca

Ignacio Larrañaga Labaca

Gaur egun, Construcciones Metálicas Arregi enpresaren eraikinetan ez dago jarduera ekonomikorik. Partzelak sartuta daude kutsatuta egon daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan (20079-00006 kodea).

**Seigarrena.**- Zarauzko Udalak aparkamendu-plazak jarri nahi ditu, dagoen arazoa arintzeko, batez ere udaldian.

Bestalde, jabeek arearen eta bertako eraikinen hirigintza-egoera ezagutzen dutenez, eta arazoak eta erantzukizunak saihesteko, egokia iruditzen zaie eraikinak alde aurretik eraistea eta partzelen erabilera Udalari lagatzea, bertan behin-behineko aparkaleku bat jarri dezan, lehen esan bezala.

Adierazitakoagatik, eta interes publikoak eta pribatuak uztartzeko, aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

### 1.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Zarauzko Udalari aldi baterako lagatzea 16 –OR Hegoalde– arean dauden bi partzelaren erabilera, lur gaineko behin-behineko aparkaleku gisa erabiltzeko. Udalak berak kudeatuko du aparkalekua, hitzarmenak indarrean dirauen bitartean.

Hitzarmenaren xede diren finkak honako hauek dira:

- a.- Bidezahar 7 (6792349 katastro-erreferentzia, 5175271 T finka), 1.688 m<sup>2</sup>-ko katastro-azalera.
- b.- Bizkaia 46 (6792159 katastro-erreferentzia, 3065974 F finka), 5.310 m<sup>2</sup>-ko katastro-azalera.

2.a klausulan aurreikusitako jarduketak hasi aurretik, hitzarmenari erantsi beharreko plano bat marraztuko da, lagako diren lurzoruen mugaketa jasoko duena..

### 2.- ZARAUZKO UDALAREN KONPROMISOAK ETA AHALMENAK

#### 2.a.- Aparkalekua egokitu aurretik

Aparkalekua egokitzeko eraitsi beharreko eraikinek lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eduki izan dituzte. Udalak bere gain hartzen du eraispen-hondakinen kudeaketari buruzko 112/2012 Dekretuan araututako jarduketa hauek kontratatatu eta ordaintzeko konpromisoa:

**2.a.1.- Partzela bakoitzeko lurzoruaren kalitatearen azterketa**, erakunde egiaztatu batek idatzi beharrekoa, partzelak aparkaleku-erabilerarako egokiak diren egiaztatzeko.

Azterketaren emaitza aparkalekua jartzeko udal-ekimenaren aurkakoa bada, hitzarmena amaitutzat joko da, eta alderdietako batek ere ez dio ezer ordaindu beharko besteari.

Udalak hitzarmena suntsitzeko aukera ere izango du, baldin eta, partzela hauen azterketaren emaitza aldekoa izan arren, Bidezahar 7 partzelaren albokoan egindako azterketa kontrakoa bada.

**2.a.2.- Lehendik dauden industria-eraikinak eraisteko obrak gauzatzeko proiektuak eta obra-zuzendaritzak**, teknikari eskudunek egin beharrekoak; hondakinen eta eraikuntza- eta eraispen-materialen kudeaketari buruzko azterlanak ere sartuko dira, eta 112/2012 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako gutxieneko

edukia izango dute. Proiektuen Memorian eraikinen deskribapen fisiko bat egingo da, eta eraikitako azalaren eta egoeraren berri emango da (optimoa, ona, erdipurdikoa, txarra, oso txarra...), bere garaian kontuan hartu ahal izateko birpartzelazio-proiektu batean kalte-ordainak eta lurzorua balorazioa kalkulatzeko, Lurzoruari buruzko Legearen balorazioen erregelamendua onartu zuen 1492/2011 Errege Dekretuaren 23. eta 25. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

**2.a.3.- Eraikinen azterketa gehigarriak**, erakunde egiaztatuak idatzi beharrekoak; 112/2012 Dekretuaren II. eranskinean aurreikusitako edukia izango dute. Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoak azterketa horiei buruzko txostena egin beharko du.

**2.a.4.- Eraispen-obra egitea eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzea**, 112/2012 Dekretuan jasotakoaren arabera.

Orientazio gisa, aurreko jardueren kostua 65.000 €-tan kalkulatu da, BEZa barne. Kostu hori Udalak ordainduko du oso-osorik, 4.1. klausulan adierazitakoari utzi gabe. Udalak beretzat gordetzen du gastu horiek eremuaren etorkizuneko kudeaketan eta birpartzelazioan urbanizazio-karga gisa baliatzeko eskubidea.

## **2.b.- Aparkalekua egokitzea eta kudeatzea.**

**2.b.1.- Aparkalekua eraikitzea**. Aurreko paragrafoetan deskribatutako jarduerak amaitutakoan, Udalak beharrezko gestioak egingo ditu ingurumen-organismoaren aurrean, lagapenaren xede diren lursailetan behin-behineko aparkaleku-erabileraren baimena lortzeko.

Baimen hori lortuta, aparkalekua egokituko du, eta gaur egun Salberdineko (Messill), edo Kortazarreko lurretan egokituta daudenen ezaugarri berberak izango ditu.

**2.b.2.- Aparkalekuaren kudeaketa**. Udalari egokituko zaio hitzarmenaren indarraldi osoan eta, hala badagokio, horren luzapenean.

Udalak nahi duena aukeratu dezake: doako aparkaleku publiko gisa erabiltzea, edo aparkaleku arautu gisa, TAO sistemaren barruan edo beste edozein kudeaketa-moduren bidez.

**2.b.3.- Lagatako lurra kontserbatzea, mantentzea eta garbitzea**. Udalaren kontura izango dira.

**2.b.4.- Erantzukizun zibila eta penala**. Hitzarmenaren indarraldian, lagatako lursailetan gerta daitezkeen kalteengatik sortutako erantzukizun zibil edo penal guztietatik salbuesten du Udalak jabetza.

**2.b.5.- Jabeei urtero OHZren ordainagirien kopuru baliokidea ordaintzea**. Erabilera-lagapenak ez du prezio baten ordainketarik sortzen. Hala ere, kontuan hartuta Udalak erabiliko duela finka interes publikoko arazoengatik, egokitze jotzen da Udalak ordaintzea ondasun higiezinaren gaineko urteko zergari (OHZ) dagokion gastua.

Beraz, 2023tik aurrera, behin aparkalekua egokituta, ordaindu beharreko OHZren ordainagirien zenbatekoa ordainduko dio Udalak jabeari.

Ordainketa urtez urte egingo da, jabetzak izendatzen duen kontuan, ordainagiriak ordaindu dituela justifikatu ondoren.

Informazio-ondorioetarako, 2022an honako hauek izan dira finkei dagozkien ordainagiriak:

- a.- Bidezahar 7 (5175271 T finka): 1.114,84 €.
- b.- Bizkaia kalea 46 (3065974 F finka): 3.641,65 €

## **3.- JABETZAREN KONPROMISOAK**

Hitzarmena sinatzen den unean, jabetzak Udalarari emango dio finken erabilera eta erabilgarritasun osoa (lurra eta eraikuntzak), okupatzailerik gabe, Udalak aldi baterako aparkaleku publiko gisa erabil ditzan. Erabilera hori libre eta arautua izan daiteke (TAO edo antzeko sistemaren bat), udal-administrazioak egokitzat jotzen duenaren arabera.

#### **4.- INDARRALDIA, BERRIKUSPENA ETA IRAUNGIPENA**

**4.1.- Indarraldia.** LAU URTEKOA izango da, sinatzen denetik kontatzen hasita.

Aurreko atalean aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, alderdiek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea –gehienez lau urteko aldi baterako– edo iraungitzea.

Jabetzak hitzarmena ez luzatzea erabakitzen bada, Udalarari ordaindu beharko dizkio 2a klausulan deskribatutako jarduera guztiengatik Udalak bere gain hartutako eta ordaindutako kostu eta ordainketa guztiak, legezko interesak gehituta.

**4.2.- Berrikuspena eta aldaketa.** Hitzarmena berrikusi edo aldatu ahal izango da, alderdiek aho batez hala adosten badute.

**4.3.- Iraungitzea.** Hitzarmena bere indarraldia amaitzen denean iraungiko da, edo aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak bete ez eta hitzarmena suntsiarazten denean.

Aurretiaz ere iraungi ahal izango da, 2.a.1 klausulan aurreikusitako inguruabarra gertatzen bada.

Hitzarmena berau ez betetzeagatik suntsitzen bada, sortutako kalte eta galera guztiak ordaindu beharko dizkie suntsiarazpenaren eragileak bai beste alderdiari bai fede oneko hirugarrenei.

#### **5.- HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA.**

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratuko da. Batzorde hori Zarauzko Udalararen bi ordezkariak eta jabeen beste bi ordezkariak osatuko dute, eta bere eginkizunak honako hauek izango dira: ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak gauzaraztea, horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea, partzelen erabilera egitean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea, eta, oro har, etorkizunean sor daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

#### **6.- HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA**

Hitzarmenak izaera administratiboa du. Ondorioz, antolamendu juridiko administratiboak arautuko du. Bi aldeek adostasunez aldatu ahal izango da.

Eta ados daudela adierazteko, bertaratuek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goian adierazitako tokian eta egunean.

### **14.- LANPOSTUEN BALORAZIOA BERRIKUSTEA**

Espedientea: 2022P3250001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=14>



2015eko abenduaren 30ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak ZARAUZKO UDALEKO LANGILE PUBLIKOENTZAKO ORDAINSARIEN ARAUDIA onartu zuen.

9. artikuluko 3. atalean jartzen duenez, urtero, urteko lehen hiruhilekoan, Balorazioko batzorde teknikoak aurreko azaroko lehen hamabostaldian jasotako berrikuspen-eskaerak aztertuko ditu.

Pasa den 2021 urteko lehen hiruhilekoan, ordea, Balorazioko batzorde teknikoa ez zen bildu, eta, beraz, oraindik erantzuteko daude honako lanpostuen fitxak aldatzeko eta ondorengo balorazioa berrikusteko eskaerak:

2020 urtea

- PAREKIDETASUNNEKO ARDURADUNA
- TURISMOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEAK
- EKITALDI ETA JAIETAKO KOORDINATZAILEA
- 2. MAILAKO OFIZIAL ELEKTRIKARIA

2021 urtea

- MANTENTZE-LANETAKO ARDURADUNA

Era berean, Ordainsarien araudiaren 10. artikulua arabera (ofiziozko berrikuspena), ATESTATUEN KOORDINAZIORAKO LEHEN MAILAKO UDALTZAINAREN lanpostua baloratuko da, 2021eko lanpostuen zerrendan ordutegia aldatu baitzitzaion.

Horrez gain, Giza Baliabideetako Departamentuak, ikusita lanpostu berriak sortu direla, honako lanpostu hauek aurkeztu ditu balorazioa egiteko:

- ERAZTUN BERDE URDINAREN TEKNIKARI LAGUNTZAILEA
- MANTENTZE-PLANA GARATZEKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA
- INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA

Lanpostuen balorazioa egin zuen enpresa berari eskatu zaio goian jasotako lanpostuen azterketa egitea (Consultores de Gestión Pública, CGP).

Hortaz, espedientean jasotako dokumentazioa ikusita, Balorazioko batzorde teknikoak apirilaren 1ean egindako bileran hala proposatuta eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

## ERABAKI DU

**Lehena.-** MANTENTZE-LANETAKO ARDURADUN lanpostuari %5eko dedikazio bereziko osagarria esleitzea (50-75 ordutakoa), eskaeran aipatutako eginkizun gehigarriak egiten dituen bitartean, Udalbatzak onartu eta hurrengo hileko lehen egunetik aurrera.

**Bigarrena.-** PAREKIDETASUNNEKO ARDURADUN lanpostuaren deskribapen-fitxaren aldaketa onartzea, eta Udalhitzeke 18. ordainsari-maila finkatzea (22 destino osagarria),

eginkizunak eta lanpostuaren transbertsalitatea dela-eta. 2020. urtean aurkeztutako eskaera denez, 2021eko apirilaren 1eko ondorioekin.

**Hirugarrena.**- 2. MAILAKO OFIZIAL ELEKTRIKARIAren eskaera ez aztertzea, bertan eskatutakoa ez baita balorazio-mahaiaren eskumenekoa.

**Laugarrena.**- ATESTATUEN KOORDINAZIORAKO LEHEN MAILAKO UDALTZAINAREN lanpostuari dagokionez, lanaldi-motaren aldaketa dela-eta (lanaldi etenetik lanaldi jarraitura aldatu da), Udalhitzeko 18. ordainsari-maila baieztatzea (20 destino osagarria).

**Bosgarrena.**- Sortu diren lanpostu berriei dagokienez, ondorengo ordainsari-mailak baieztatzea:

- ERAZTUN BERDE URDINAREN TEKNIKARI LAGUNTZAILEA: Udalhitzeko 15. maila (20 destino osagarria).
- MANTENTZE-PLANA GARATZEKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA: Udalhitzeko 13. maila (19 destino osagarria).
- INSTALAZIOETAKO TEKNIKARIA: Udalhitzeko 18. maila (21 destino osagarria).

**Seigarrena.**- Erabaki gabe uztea TURISMOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE eta EKITALDI ETA JAIETAKO KOORDINATZAILE lanpostuen eskaerak. Lanpostu horiek eta Turismoko Departamentuaren berrantolaketa aztertu eta egoki ikusiko balitz, lanpostuen deskribapen-fitxak onartu ondoren, horiek baloratzea.

**Zazpigarrena.**- KULTURAKO ARDURADUN lanpostuari dedikazioa eta disponibilitatea % 15etik % 20ra handitzea, eta KULTUR DINAMIZATZAILE lanpostuaren dedikazioa, berriz, % 5etik % 15era, Udalbatzak onartu eta hurrengo hileko lehen egunetik aurrera.

**Zortzigarrena.**- GIZA BALIABIDEETAKO ARDURADUN lanpostuari dedikazioa % 10etik % 15era handitzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu guztia gauzatu bitartean, Udalbatzak onartu eta hurrengo hileko lehen egunetik aurrera; eta, ondoren, berriz ere % 10era itzultzea.

## 15.- ESKARI-GALDERAK

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220630&punto=15>

Bertaratutako inork ez du hitzik hartu.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko bederatziak eta hamarreen; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.